

LOKALAREN INGURUMENEN FAKTOREAK, ALKOHOL KONTSUMOAREKIN LOTUTAKO ARRISKUAK MURRIZTEKO.

Alkohola kontsumitzean, gudan eragina izan dezaketen hainbat faktore hartu behar ditugu kontuan; kontsumitzen den espazioaren baldintza fisikoek arrisku gehiago edo gutxiago izatea eragin dezakete.

Garrantzitsua da kontuan hartzea, bai aisiarako lokaletan lan egiten dutenentzat, bai horien erabiltzaileentzat, jai- edo aisia-giroa positiboa izatea sustatzen duten ingurumen-neurri batzuk.

Kalitatezko aisia garatzeko, honako kontu hauek izan behar ditugu gogoan:

A. SARBIDEA KONTROLATZEA

Lokaletako atezainek zeregin oso garrantzitsua dute sarrera-eskubidea arautzeko orduan, dela adingabeen kasuan, dela jokabide antisozialak erakusteko arriskua duten pertsonen kasuan. Beste zeregin bat da aretoan dauden pertsonen segurtasuna bermatzea eta, horrela, borrokak saihestea eta larrialdi-egoeretan jardutea.

B. EDUKIERA KONTROLATZEA

Drogen kontsumoak pertzepzio desitxuratua eragin dezake eta horrek kontsumitu duenari bere espazioa inbaditzen ari direlako sentimendua edo baita eraso egin diotelako sentimendua ere. Gerta liteke, halaber, oso beterik dagoen lokalean zailagoa izatea arazo batzuk –besteak beste, zaurituak, zorabioak, ebaluazioak eta abar– antzematea eta horietan esku hartzea.

C. AIREZTAPEN APARATUAK

Droga batzuek, batez ere estimulatzaileek, dosi handietan kontsumituta (speeda, kokaina, estasia), maila psikologikoan antsietate-sintomak eragin ditzakete, besteak beste: takikardiak, zorabioak, hiperbentilazioa, izerditzea... Eta sintoma horiek, maila altuan, antsietate-atakeak ekar ditzakete.

Lokal batean aireztapen desegokia badago, aurretik aipatutako sintoma guztiak ager daitezke.

Bestalde, estasia eta substantzia estimulatzaileak kontsumitzean, fisiologikoki, gorputzeko tenperatura gutxienez 1°C igotzen da. Horrez gainera, aireztapen falta badago, pertsonak zorabioak, konorte-galerak, erorketak eta, muturrean, bero-kolpea izan ditzake; bero-kolpearen bidez, zoritxarrez, garaiz artatu ezean, hil egin daiteke.

D. ARROPAZAINDEGIA

Espazio horrek erosotasuna eskaintzen du lokal batean gaudenean; izan ere, temperatura handia dagoenean –normalean lokaletan gertatzen den bezala–, traba egiten diguten arropak utz ditzakegu bertan.

Estasia eta substantzia estimulatzaileak kontsumitzean, gorputzeko temperatura igo egiten da; hori dela eta, arropak kentzeko eta leku seguruan uzteko aukera edukitzea deshidratazioak, konorte-galerak eta zorabioak saihesteko bide bat da.

Oro har, droga-mota guztien kontsumoarekin gerta daiteke kontrol-galera eta, ondorioz, norberaren objektuak galtzea edo ahaztea, eta lokalean ondo antolatutako arropazaindegia badago, arrisku hori ekiditen dugu.

Halaber, lapurretak ere saihesten ditu eta motorren kaskoak edo bestelako objektuak gordetzera ere behartzen gaitu, kontuan hartuta, sarritan, borrokarako baliatzen direla. Arropazaindegia izatea bezain garrantzitsua da erabilera eskuragarri egiten duen prezioa kobratzea.

Batzuetan, ezinezkoa da arropazaindegia izatea, lokalaren tamainagatik, baina, ahal dela, garrantzitsua da zerbitzu hori izatea.

E. URA ESKURAGARRI IZATEA

Garrantzitsua da ura eskuragarri izatea, egarria asetzeko, horretarako edari alkoholduna hartzeko beharra izan gabe.

Droga estimulatzaileen kontsumoak deshidratazioa eragiten du eta arrisku hori areagotu egiten da alkohola edaten bada.

Garrantzitsua da ura eskuragarri izatea; gainera, kontsumitzailearen eskubidea da.

- Bero handia denean, freskatzeko, zorabiatuta egonez gero.
- Sudurra garbitzeko, sudurretik substantziak kontsumitu ondoren (koka, speeda, ketamina).
- Norberaren higienarako.

F. PRESERBATIBOEN MAKINAK LOKALETAKO KOMUNETAN EDO IRTEERAN

Sexu-transmisioko gaixotasunak prebenitzeko neurri gisa.

Alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzeak pertsonarengan eragindako deshinibitzeen edo erabakiak hartzeko zailtasunaren bidez, seguruak ez diren sexu-harremanak izan ditzake. Garrantzitsua da ondo ikusteko eta eskuratzeko lekuan (komunetan) jartzea preserbatiboen makina bat –hura berrikustea komeni da–.

G. EDARIEN PREZIOAK

Edari alkoholdunen eta alkoholik gabekoen prezioen artean desberdintasun handirik ez badago, jendeak alkohol gehiago edateko joera du.

Edarien prezioak asko igotzeak ekar dezake dirurik ez dutenek kalitate txarragoko edariak kontsumitzea, lokalaren kanpoan kontsumitzea edo baldintza txarretan heltzea lokalera.

H. EDALONTZIAK BATZEN DITUEN PERTSONA BAT EGOTEA

Droga psikoaktiboaren kontsumoaren bidez, pertzepzioa, arreta eta oreka kaltetu egiten dira. Garrantzitsua da lokalean gauzak jasota edukitzea, kristalekin ebakirik eta zauririk ez egiteko. Irudi horren inguruan nabarmendu beharreko beste alderdi bat da istripuren bat, zorabioren bat edo borrokaren bat dagoenean, segurtasuneko langilea jakinaren gainean jartzeko duen zeregina; izan ere, lokaletik ari da begiratzen ezer arrarorik gertatzen ari den.

I. ATSEDEN GUNEA

Lokalak baldintza fisiko egokiak baditu, atsedeen-guneeak ere antola daitezke.

Drogak gure organismoan eragina izaten hasten direnean, ondoeza, takikardia eta, egoera oso larrietan, izu-atakeak gerta daitezke. Edukieraren eta lokalaren tamainaren arabera, komeni da espazio bereziak izatea eta, horietan, musikaren bolumena baxuagoa izatea, bai eta temperatura ere, esertzeko lekua egotea eta jende gutxiago ibiltzea, gaizki dagoen pertsona bere onera itzuli ahal izateko.

J. SOINU, ERRITMO ETA ARGIEEN KONTROLA

Kokaina, speeda, estasia eta beste estimulatuak batzuk kontsumitzean, nerbio-sistema zentralaren funtzionamendua bizkortu egiten da. Goranzko musika-erritmoak, etengabe gorantz doazen soinu-efektuekin, ondorio desagokiak eragin ditzake, besteak beste, nekea, zorabioak, konorte-galerak, bero-kolpeak. Komeni da Light-Jockeyak eta DJak beren saioetan erritmoak, argiaren intentsitateak, bolumena eta beste soinu-efektu batzuk kontrolatzea.

K. LARRIALDIETAKO IRTEERA

Droga estimulatzaileak kontsumitzeak eragiten duen sintometako bat begi-ninien dilatazioa da; hori dela eta, *after house* askok oso argi gutxi dute, begietan minik ez emateko.

Larrialdietako irteeraren seinaleztapena funtsezkoa da lokal guztietan, baina horrelako lekuetan zein garrantzitsua den nabarmendu nahi dugu, argi gutxi izaten baitute eta droga kontsumitu dutenek larrialdi-egoeran erreakzionatzeko gaitasuna murriztuta dutelako.

L. INFORMAZIO ETA TESTING STANDETARAKO AUKERAK ESKAINTZEA

Eremu horretan lan egiten duten erakunde edo organizazio batzuek egin dituzte, zenbaitetan, kanpainak, *flyer* edo *postal free* formatuak erabiliz; formatu horiek egokiak dira gazteak izaten diren lekuetan erakusteko.

Drogen aisuntzea da drogen erabilerarekin lotutako arrisku nagusietako bat eta erabiltzaileen ardura nagusietako bat. Testingak erakutsi du oso eraginkorra dela nekez beste prebentzio-bitarteko batzuetara hurbilduko liratekeen kontsumitzaileekin harremanetan jartzeko; gainera, horrela, informazio osagarria eskura dezakete eta edonolako kontsultak egin.

M. GARRAIO PUBLIKOA

Europako hiri askotan, parrandarako guneak hirigunetik urruntzeko joera ikusi da, zaratak eta gaueko lokalen inguruko pertsonekin liskarrik ez izateko.

Hala ere, trafiko-istripuen arriskuak gora egin du, nabarmen. Komenigarria izango litzateke lokal horietara heldu ahal izateko garraio-sarea antolatzea.

Alkohola trafiko-istripu guztien erdiaren edo gehiagoren protagonista da, eta 18 eta 24 urte bitarteko gazteen heriotza-kausetan lehenengoa. Alkohola kanporatzeko abiadura ordu bakoitzeko 7-8 gramokoa da. Kafea hartzea, bustitzea edo ur hotzez dutxatzea, kirola egitea edo izerdia botatzea ez da odoleko alkohol-kopurua gutxitzeko bide.

Uste okerra da speedak eta kokainak mozkorra kentzen dutela. Egia da subjektuek erneago daudelako eta segurtasun-sentsazio handiagoko sentsazioa dutela, baina arreta, erreflexuak eta erreakzionatzeko gaitasuna kaltetuta daude, eta ikaragarri biderkatzen dira istripua izateko arriskuak.

N. LANGILEAK KOMUNEAN

Diskoteka, diskotaberna eta pubetako bezeroak pozik ez egoteko arrazoi nagusietako bat komunaren egoera da. Askotan, zikin eta putzuz beteta daudenez komunak, erortzeko eta

istripuak izateko aukera handia da. Egoera hori arintzeko, komunitan langile bat izaten da, leku batzuetan. Langile horrek hiru zeregin ditu:

- Garbitu.
- Komunak drogen kontsumorako erabiltzen ez direla ziurtatu.
- Segurtasuneko langileari zorabioen eta konorte-galeren berri eman.

O. PARKINGA ANTOLATZEA ETA KONTROLATZEA

Parkinga daukaten edukiera handiko lokaletan, komeni da hura zaintzeko langileak izatea, gidatze arriskutsurik ez dagoela eta legez kanpoko substantziak saltzeko leku bilakatzen ez direla ziurtatzeko.

P. LAGUNTZA PROTOKOLOA.

Oso garrantzitsua da lokalaren barruan laguntza-protokoloa ezartzea, zerbait gertatzen den kasuetarako; izan ere, horrela, esku-hartzea bizkorragoa eta egokiagoa izan daiteke. Anbulantziari nork deituko dion zehaztea, nor joango den kaltea jasan duen pertsona ikustera... Horrek guztiak modu positiboan laguntzen du ebaluazioan eta esku-hartzea bizkorragoa izaten.

Q. BOTIKINA IZATEA.

Oso garrantzitsua da ostalaritzako edozein establezimendutan botikina izatea; izan ere, erabiltzaileentzat eta lokaleko langileentzat da erabilgarria. Horrenbestez, garrantzitsua da bertan beharrezkoa dena edukitzea, esku hartu behar badugu ere, aldizka bertan dagoena ikuskatzea ezer ez izateko faltan eta materiala baldintza bikainetan egoteko. Botikinean izan beharreko garrantzitsuena hau da:

- Eskularruak, pertsona batekin harremanetan jarriko garen guztietan erabiltzeko.
- Gaza esterilak, banakakoak
- Serum fisiologikoa